

## Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Zientzia

Unai BELINTXON MARTIN

**Aurkibidea:** **I. Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Kontzeptua.** 1. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren ikuskera publizista erreferentzia historiko bezala. 2. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuskera arautzailea. 3. Ikuskera Objektibista zabala. 4. Gehiengoaren ikuskera: Ikuskera Pribatista. **II. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ezaugarriak: Estatalitatea, autonomia zientifikoa, eskusibotasuna, erlatibitatea.** 1. Estatalitatea. 2. Autonomia zientifikoa. 3. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren eskusibotasuna. 4. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren erlatibitatea. Forum Shopping. **III. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren eskusibotasun eta erlatibitatearen ondorioak.** **IV. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren objektua: Nazioarteko egoera pribatuak.** **V. Egoera pribatua: Egoeraren izaera pribatua.** 1. Subjektu partikularrak. 2. Boterearen agindupean jokatzen ez duten subjektu publikoak. 3. Boterearen agindupean jokatzen duten subjektu publikoak. **VI. Nazioarteko egoera: Harremanaren nazioarteko ezaugarria.** 1. Zenbait kasuetan tesi zehatz bat hartu beharra. **VII. Nazioarteko egoera pribatuaren egungo ezaugarriak.** 1. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren garapena Zuzenbide interkulturalerantz. 2. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren oinarri eta funtzioak. **VIII. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren edukia.** 1. Nazioarteko eskuduntza judiziala. 2. Nazioarteko egoera pribatuaren Zuzenbide aplikagarria. 3. Legeforismoa. 4. Atzerritar ekintza eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna. 5. Lege gatazkak konpontzeko Espainiar Zuzenbide interregionaleko arauak. **IX. Bibliografia**

### I. Nazioarteko Zuzenbide pribatua kontzeptua

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren kontzeptuak eztabaida anitzak eragin ditu urteetan zehar. Kontzeptuak, bere objektuak, bere eduki baita funtzioak ere doktrina zientifikoa gatazka ugari eragin dituzte. Guzti honen ondorioz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren inguruko kontzepzio ezberdinak topa ditzakegu.

#### 1. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuskera publizista erreferentzia historiko bezala

Historikoki Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren zati bezala ulertua zen. Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Nazioarteko Zuzenbide Publikoan Estatu baten edota bestearen legea ezarri behar zen kasuak zehazten zuen atalari deritzoten. Hau da, herrialde ezberdinetako legediei espazioan mugak ezartzen zizkien.

Gaur egunean berriz, honako ikusmolde hau guztiz gáinditu dugu, bereziki Nazioarteko Zuzenbide Pribatua partikularren arteko harreman pribatuak arautzen dituen adar juridiko-pribatu bezala ulertzen delako. Ondorioz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak ez ditu Estatuaren subiranotasunean eragina duten kasuak arautuko. Era berean, hasiera batetan behintzat, Nazioarteko Zuzenbide Publikoan partikular eta instituzioen edota administrazio publikoen arteko eremuan ematen diren harreman juridikoetan ez du esku-hartzerik egingo.

#### 2. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuskera arautzailea

Zenbait autoreen ustetan, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak edozein egoera juridikoari zein Zuzenbide estatal ezarri behar zaion zehaztea du objektu, beti ere bere izaera nazioartekoa, zein nazionala, publiko edo pribatua alde batera utziz.

Alegia, lerro hau jarraitzen duen doktrinak Nazioarteko Zuzenbide Pribatua aurretiko tresna juridiko bat bezala ulertzen du, ezartzea derrigorrezkoa den Zuzenbide bat delarik, eta harreman juridikoetan aplikagarria den Zuzenbidea zehazten duen arau multzo bat izanik.

Doktrina internazionalista gehiengoak honako ikuskera honek nazioarteko gatazka pribatuei erantzunik ematen ez diola ikusten du, soilik zuzenbide aplikagarria zehazten baitu, erantzuna behar duten Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko beste hainbat galdera ahaztuz -besteak beste-: Nazioarteko egoera pribatuetan sortzen diren gatazken nondik norakoak zein auzitegi ezagutu behar dute?, eta amaitzeko, Zein eragin dute bere herrialdean atzerriko erabakiek?

### **3. Ikuskera Objektibista zabala**

---

Bestalde, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua kanpo-merkataritzaren erregimen juridikoa edo partikularren nazioarteko bizitza juridikoa zehazten duen diziplina bezala ulertzen duen joera ere badago. Hau da, joera honek Nazioarteko Zuzenbide Pribatua nazioartekotasun elementuren bat identifikatu daitekeen egoera juridiko oro -edota atzerriko elementu bat duena- eta gainera partikularrei eragiten dien egoerak biltzen ditu, beti ere gertakaria zuzenbide pribatu -partikularren arteko harremanak- edota zuzenbide publikoa -partikular eta Estatuaren arteko harremanak- den alde batetara utzita.

Joera honetako doktrinarentzat Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren barnean honako materia ezberdinak aurkitzen dira:

- 1) Nazioarteko eta herrialdeen arteko egoera pribatuen Zuzenbide Aplikagarria.
- 2) Atzeritartasun Zuzenbidea.
- 3) Nazionalitatearen Zuzenbidea.
- 4) Nazioarteko Eskumen Judiziala.
- 5) Atzerriko erabakien efektuak.

Nahiz eta erabilgarria den ikuskera bat izan, bereziki egun bizi garen mundu globalizatu honetan nazioarteko izaera duten harreman juridiko gehienetan zuzenbide publiko eta pribatua nahasketek, doktrinaren gehiengoa ikuskera pribatistaren alde agertzen ekartzen du.

### **4. Gehiengoaren ikuskera: Ikuskera Pribatista**

---

Doktrinaren gehiengoaren ulerpen eta posizionamenduaren arabera, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Estatu bakoitzaren ordenamendu juridikoaren barnean nazioarteko izaera duten egoera pribatuak arautzeaz arduratzen den atala da.

Ikuskera hau aurrekoen gainetik agertzearen arrazoia ondorengo puntuek argudiatzen dute:

- 1) Ikuskera honek Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren objektua nazioarteko izaera duten partikularren arteko harremanez osatua dagoela ulertzen du. Hots, hasiera batetan behintzat, partikular eta Estatuaren arteko harremanak aldera uzten ditu.
- 2) Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren kontzepzio honek nazioarteko harreman pribatuek sortarazten dituzten hiru galdera handiei erantzun juridiko-legala emateko gai da: Alde batetik, Nazioarteko egoera pribatuetan sortzen diren gatazken nondik norakoak zein auzitegi estatalek ezagutu behar dute?, eta bestetik, Auzitegiek zein zuzenbide ezartzen dieten gatazka horiei? eta azkenik, Zein eragin dute bere herrialdean atzerriko erabakiek?

3) Ikuskera honek Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Zuzenbide Pribatuaren zati bat bezala ulertzen du, Estatuaren arteko harremanei eragiten ez dieten nazioarteko egoera pribatuak arautzen baititu, interes partikularrak direnak soilik.

## **II. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ezaugarriak: Estatalitatea, autonomia zientifikoa, eskusibotasuna, erlatibitatea**

### **1. Estatalitatea**

---

Nazioarteko Zuzenbide Pribatua nazioarteko izaera duten egoera pribatuak arautzen dituen Estatu bakoitzaren ordenamendu juridikoaren sektorea da. Guzti honen arrazoi nagusia egun nazioarteko izaera duten egoera pribatuei erantzuna ematen dien nazioz gaindiko zuzenbide baten gabezia da, baita nazioarteko egoera pribatuek dakartzaten auziei konponbidea ematen dieten nazioarteko auzitegirik ez egotea ere. Dena den, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua arau nazional -lege, dekretu-, zein nazioarte mailan sorturiko arauez - Nazioarteko Hitzarmenak, Erkidegoko Erregelamenduak eta abar- osaturik dago.

### **2. Autonomia zientifikoa**

---

Nazioarteko Zuzenbide Pribatua estatu bakoitzeko ordenamendu juridikoa dagoen adar juridiko independente bat da, Zuzenbide Zibila edota Merkataritza Zuzenbide adarrak diren bezala. Guztiarekiko ageri duen autonomia horren muina berezkoak diren printzipio, arau eta kontzeptu zehatzak izatea da, baita partikularren artean nazioarteko izaera pribatuak dituzten egoerei erantzuna emateko aurkitzen diren egokitutako erakundeen existentzia ere.

Gisa berean, esan beharra dago ezin dela Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Nazioarteko Zuzenbide Publikoarekin nahasi, ezta Europar Batasuneko Zuzenbidearekin ere ez.

#### **a) Nazioarteko Zuzenbide pribatu eta nazioarteko Zuzenbide publikoaren arteko bereizketa**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Nazioarteko Zuzenbide Publikoaz guztiz autonomo eta independentea da. Aurreko honen arrazoiak honako hauek dira: Nazioarteko Zuzenbide Publikoa Estatu eta nazioarteko izaera juridikoa duten beste subjektu batzuen arteko harremanak arautzen ditu bati-bat, Europar Batasuna besteak beste. Ostera, subjektu pribatu edota partikularrei eragiten dieten nazioarteko harremanak Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren objektua da.

Nazioarteko Zuzenbide Publikoa gidatzen dituen arauak soilik estatuen arteko hitzarmenen bitartez sortzen direla kontuan izan beharreko ere bada. Nazioarteko Zuzenbide Pribatua berriz, estatu bakoitzaren ordenamendu juridikoaren sektore bat da, estatuen artean sortu ditzaketen edota nazioz gaindiko erakundeek -Europar Batasuna adibidez- sorturiko nazioarteko hitzarmenez aparte.

#### **b) Nazioarteko Zuzenbide ribatu eta EBko Zuzenbidearen arteko bereizketa**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatua eta EBko Zuzenbideak ere ezin ditugu nahastu. Euroar Batasuneko Zuzenbidearen helburua EBko antolakuntza eta funtzionamendu juridikoa arautzea da. Behin hau esan, jakin beharra dugu EBko Zuzenbidea berezko ordenamendu juridikoa osatzen duela, Estatu kideen ordenamendu juridiko barnean kokatuz. Modu honetan, EBko Zuzenbidea bi zutabe handitan banatzea beharrezkoa dugu:

alde batetik, egitura arautzen duen EBko Zuzenbide instituzionala deritzona; eta bestetik, EBko Zuzenbide materiala dago. Bigarren zutabe hau zuzenbidearen esparru guztiei (Zuzenbide Zibila, Merkataritza Zuzenbidea, Finantzarioa, Laborala, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua eta abar) eragiten dieten xedapen juridikoz osaturik dago.

### **c) Nazioarteko Zuzenbide pribatua eta barneko Zuzenbide pribatuaren (Zuzenbide Zibila, Laborala eta Merkataritza Zuzenbidea) arteko bereizketa**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatua eta Barneko Zuzenbide Pribatuaren (Zuzenbide Zibila, Laborala eta Merkataritza Zuzenbidea) arteko bereizketa nazioartekotasun elementuaren inguruan dabil. Zuzenbide Zibila, Laborala eta Merkataritza Zuzenbidea barnekoak, nazionalak edo etxeko harreman juridiko pribatuak arautzen dituzten bitartean, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua nazioarteko testuinguruko zuzenbide pribatua da. Hau da, barneko Zuzenbide Pribatua estatu barneko justizia bermatzen du, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua berriz, nazioarte mailan estatu justizia bermatzen du.

### **3. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren eskusibotasuna**

---

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren eskusibotasuna nazioartekoak eta pribatuak diren egoeretan agertzen diren eztabaida juridikoen aurrean, non espainiar auzi eta autoritateak ezagutzeko kompetentzia duten, espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak soilik ezarriko direla esan nahi du. Honako eskusibotasuna Kode Zibileko 12.6 artikuluan jasota agertzen da: *“Los Tribunales y autoridades aplicarán de oficio las normas de conflicto del derecho español”*.

Eskusibotasuna espainiar autoritateek espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak soilik ezarriko dituzte ondorengoak zehazteko: a) Espainiar auzi eta autoritateen kompetentzia nazioarteko egoeren aurrean; b) Nazioarteko egoera pribatuei ezartzen zaion zuzenbidea; c) Atzerrian agindutako ebazpenen baliotasun eta ondorioak Espainian.

Bada, kontuan izan beharreko gauza da espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak nazioarteko eztabaida bati ezarri beharreko zuzenbidea adierazten diela espainiar autoritate eta auziei, eta gaiari ezarriko zaion funtsezko zuzenbide hori espainiar Zuzenbidea edota atzeritar Zuzenbideren bat izan daiteke.

**Adibidea:** Irudika ezazu egun Espainian bizi diren venezuelar senar-emazteak espainiar auzietan dibortzioa azaldu dutela. Espainiar auziek eztabaida gaiaz beren kompetentzia zein den erabaki beharko dute espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren arauak ezarri, inoiz ez Venezuelako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren arauak ezarri. Behin espainiar auziek gaiaz ezagutzeko kompetentzia zein duen erabakita, dibortziori zein zuzenbide ezarri behar zaion aztertu beharko dute. Modu honetan, espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak izango dira gatazka konponduko dutenak dibortzioa Venezuelako funtsezko Zuzenbidea edo Espainiako funtsezko Zuzenbideagatik zuzenduz.

Atzerriko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauen aplikaziori dagokionean, ez da beharrezkoa, ezta debekatua ere ez. Ondorioz, espainiar auziek atzeritar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak ezarri edota kontuan izan ditzakete legelariak honela adierazten duenean.

#### **4. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren erlatibitatea. Forum Shopping**

Erlatibitateak esanahi bikoitzari egiten dio erreferentzia:1) Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Estatu ezberdina da. Hau da, Estatu bakoitzak berezko Nazioarteko Zuzenbide Pribatua du (Nazioarteko Zuzenbide Pribatu alemaniarra, espainiarra, italiarra, ...). Hau dela eta, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua erlatiboa dela esaten da, ez baitago estatu guztientzat baliagarria den Nazioarteko Zuzenbide Pribatu bakarra.2) Azaldu beharra dago ere, emaitza materialak ezberdinak izan ohi direla estatuaren arabera. Alegia, nazioarteko egoera pribatu berbera baten aurrean Estatu ezberdinetako autoritateek soluzio ezberdinak eman ditzakete, egoera bakoitzari Estatu Nazioarteko Zuzenbide Pribatua ezarriko baitzaie. Azkenik, esan beharra dugu, erlatibitatea eta ondorioz dakarren emaitzen aniztasuna hori Estatu ezberdinen arau desberdinak batuko dituzten nazioarteko tresna legalen bitartez bateratzeko aukera badagoela.

##### **a) Forum Shopping edo hitzarmenezko foru baten bilaketa**

Zalantzarik gabe, partikular batentzat komenentzia handiena dakarren foru baten bilaketa Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren barnean aurkitzen diren irudien artean bereziena da. Forum shopping-a gatazka aurkeztu zuenaren interes partikularrak faboratuko duen emaitza juridikoa xede izanik herrialde zehatz batetako auzi edo autoritateengana joatea da. Beti ere, nazioarteko egoera pribatu berbera herrialde berdineko edota ezberdinetako auzi edota autoritatetan nola aurkeztu denaren arabera era ezberdinetan ebatzi daitekela jakinik.

### **III. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren eskusibotasun eta erlatibitatearen ondorioak**

Eskusibotasun eta erlatibitatea Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko karaktere bezala egoteak bi alderdietan kontrako emaitzak sorrarazten dituzte: Alde batetik, lehenik esan bezala, Estatu bakoitzak berezko Nazioarteko Zuzenbide Pribatua du, beraz, nazioarteko izaera duten egoera juridiko pribatu bakoitzari Estatu bakoitzeko auzitegiek norberaren sistema ezarriko diete. Ondorioz, estatuetakoa auzitegi ezberdinen aurrean aurkeztutako gatazkei emango zaion ebazpenak desberdinak izatea dakar, guzti honek nazioarteko izaera duen merkataritza pribatuaren segurtasun juridikoari kaltea eraginez. Bestalde, emaitzen aniztasun horren aurrean uko egiten duten erabakiak deritzotena sortzen dira. Alegia, dakigun moduan, hasiera batetan epai judiziala edo herrialde batetako auzitegiek emandako ebazpenak aditzera eman den tokian eragina izango du. Aitzitik, emandako ebazpena beste herrialdeetan eragin izateko betekizun eta prozedura batzuk gaitzitzea beharrezkoa da. Hau dela eta, beste herrialde batetan iragazki legal horiek gaitzitzen ez badira, ebazpen juridikoak ez luke inolako eraginik izango bertan. Guzti honek, babes judizial eraginkorraren eskubidea eta nazioarteko segurtasun juridikoa murrizten du, baita partikularren nazioarteko zirkulazio librea kaltetu ere.

### **IV. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren objektua: Nazioarteko egoera pribatuak**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren objektua nazioarteko egoera pribatuak dira. Bide batez, azpimarratu beharra dago egoera pribatuaren nazioarteko karaktereak zailtasun bereziak erakartzen dituela. Kontuan izan behar dugu Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak auzitegi kompetenteak zeintzuk izan behar diren zehazten duela, bereziki legedi estatal aplikagarriak, eta atzerriko ebazpenen eraginkortasuna definitu ere. Nazioarteko harreman pribatu horien zailtasunak zuzenbidearen adar espezifikoa hau eskatzen dute -Nazioarteko Zuzenbide Pribatua hain zuzen ere-.

## V. Egoera pribatua: Egoeraren izaera pribatua

Egoera pribatu bat esku-hartzen duten subjektuak partikularrak direnean, edo honela ez direnean zuzenbideak subjektu pribatu bezala jokatzeko dutenean -zuzenbide pribatuko subjektu bezala agertzen diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak, eta erakunde eta administrazioak- agertzen da. Hau da, egoeran esku-hartzen duten alde guztiak maila juridiko berdin batetik jokatzeko dutenean, inork ez bestearengana publikoak diren botere edota abantaila erabili gabe, egoera juridiko pribatua dela esango dugu.

Funtsean, nazioarteko egoera pribatuak ondorengo harreman juridikoetan topa ditzakegu: a) Subjektu partikularrak esku-hartzen duten harreman juridikoak; b) Boterearen agindupean jokatu gabe dagoen Zuzenbide publikoko subjektu bat parte hartzen duen harreman juridikoak.

### 1. Subjektu partikularrak

---

**Adibidea:** Egoitza New York-en duen enpresa batek Iruñean egoitza soziala duen enpresa bati azken belaunaldiko 10000 bideo-joku erosten dizkio. Bideo-joku horiek ez ordaintzearen ondorioz Iruñean egoitza duen enpresak espainiar epaitegi eta auzietan New York-en egoitza duen enpresa demandatu du. Merkataritza-juridiko harreman hau erlazio horizontal bat da, bi aldeak subjektu pribatuak dira, bitariko inork ez du abantailarekin jokatzeko. Ondorioz, harreman juridiko hau pribatutzat hartu dezakegu, eta gainera, nazioarteko izaera duena ere.

### 2. Boterearen agindupean jokatzeko ez duten subjektu publikoak

---

**Lehen adibidea:** Irudika ezazue Espainiar Estatuak norbanako bati arte bilduma bat erosten diola, nazioarteko merkataritzan subjektu pribatu bezala jokatzeko duelarik, eta kontratuzko maila pribatu batetan edozein partikular bezala gatazka edota arazoaren aurrean erantzuten duena.

**Bigarren adibidea:** Irudika ezazue erakunde publiko batek garraio baten kontratazioa egiten duela 3 eguneko bidai batetan bere langileria Frantziatik garraiatzeko. Erakundea maila pribatu batetan jokatzeko ari da, boterearen agindupean jokatzeko ez duen nazioarteko merkataritza da, horregatik, kontratua betetzen ez bada, di subjektu partikularri bezala arazoa leporatu diezaiotegu.

### 3. Boterearen agindupean jokatzeko duten subjektu publikoak

---

**Adibidea:** Ministerio fiskalak legez kontrako atxiloketa, erditze suposizio eta aitatasun eta amatasun aldakuntza, adingabekoaren egoera eta baldintza, adopzio irregular, eta Agiri Ofizialaren faltsukeria delituagatik akzioa balitzen duen pribatuak diren hainbat kliniketako mediku eta erizainen aurka. honako egoera baten aurrean Estatuak subjektu publiko bezala esku-hartzen du. Harreman juridiko bertikal bat da, estatua abantailazko posizio batetan aurkitzen da, hortaz, ez da Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren objektu, espainiar Zuzenbide Penalaren menpe geratuz.

## VI. Nazioarteko egoera: Harremanaren nazioarteko ezaugarria

Zenbait kasutan oso zaila egiten zaigu nazioartekotasuna izaera duen egoera juridiko bat eta barne izaera edota nazionala duen beste baten arteko bereizketa egitea. Egoera juridiko pribatu bat nazioarteko den ala ez adosteko garaian doktrina zientifikoa zatiturik aurkitzen da. Aipagarrienak direnak, eta ondorioz azterketarako erabilgarriak izango ditugunak ondorengoak dira: 1) Atzerritar elementuaren tesia; eta, b) nazioarteko eraginaren

tesia. a) Atzerritar elementuaren tesiari dagokionean: egoera pribatu bat nazioarteko izaera hartzeko gutxienez atzerritar elementuren bat izan behar du. Alegia, atzerritar elementuren bat duten egoera edo harreman juridikoetan jarduketa prozesalean hasitako akzio judiziala zein auzitegi edota estatutan ipini behar den zalantzen egon ohi da. Orokorrean, barne esparruan ere zalantzak agertzen dira gaiari dagokionean zein auzitegik ezagutu behar duen, baina, ez da zalantzarik agertzen eztabaidagaia ezagutu behar dutenak nazionalak diren auzitegi eta epaitegiak izango direla. Espainiar jurisprudentzian honako tesia da nagusitzen dena. Adibideak: a) Egoitza Espainian duten bi enpresen arteko Zuzenbide ingelesari loturik dagoen itsaso bidezko garraio kontratu bat. Zuzenbide ingelesaren menpe geratze hori izango da atzerritar elementua, enpresen egoitzetatik at dagoen atzerritar Zuzenbidea. Egoera hau beraz, nazioarteko egoera pribatu bat da, hortaz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak arautuko du; b) Zaragozan ezkonduko venezolar emakume eta marrokiar gizonetako bat. Ezkontza zibila Espainian eman da. Espainian jaio den beren semearen espainiar nazionalitatea eskatu nahi dute; c) Frantziar bizi diren espainiar eta greko baten arteko dibortzia Espainiar auzitegietan.

Nazioarteko eraginaren tesiari dagokionean berriz: eraginkortasunari dagokionean zalantza gehiago sortzen dituen tesia da. Honen arabera mugaz haraindiko eragina duten egoerak nazioarteko izaera dute. Mugaz bestalde eragina izango ez balu, hau da, beste herrialdeetan eraginik ez balu, ez da nazioarteko izaera duen harreman bat bezala ulertuko. Adibidea: Bartzelonan egoitza duen enpresa batek egoitza Eibarren duen enpresa bati txapelak erosten dizkio AEBra esportatzeko intentzioarekin. Salerosketa kontratuak ez du atzerritar elementurik, baina, nazioarteko merkataritzara loturik doa, beste herrialdeetan eragina izanik. Ondorioz, nazioarteko eraginaren tesiaren arabera, harreman juridiko hau nazioarteko erlaziotzat hartu behar da.

## 1. Zenbait kasuetan tesi zehatz bat hartu beharra

Harremanaren nazioarteko izaerari buruzko tesiaz azaldu ostean, espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuan egoera pribatu bat nazioartekoa noiz den esaten duen xedapen legalik ez dagoela azpimarratu beharra dago. Nahiz eta zenbait kasuetan nazioarteko izaera duela zehazten duten salbuespenak egon badaude. Hau dela bide, orokorrean, legegileak epaitegi eta auzitegien esku uzten du momentuan ezagutzen ari diren kasura aplikatu beharreko tesiaren aukeraketa. Legegileak egoera juridiko baten aurrean tesien inguruan hartzen dituen erabakien adibideak: *Atzerritar elementuaren tesia*: Hartzekodun-konkurtoaren inguruko 22/2003 Legea; Kreditu-entitateen sanotze inguruko apirilaren 22ko 6/2005 Legea; Erroma I Erregelamendua, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak egoerak atzerritar elementuak dituztenean dira aplikagarriak; LAI 2007ko 1.2 artikulua zera dio nazioarteko adopzioaren inguruan: *La presente ley regula la intervención de la Administración General del Estado, de las Entidades Públicas y de los organismos acreditados para la adopción internacional, la capacidad y requisitos que deben reunir las personas que se ofrecen para adoptar, así como las normas de Derecho internacional privado relativas a la adopción y otras medidas de protección internacional de menores en los **supuestos en que exista algún elemento extranjero.*** 2. *A los efectos del título I de esta ley se entiende por adopción internacional aquella en la que **un menor** considerado adoptable por la autoridad extranjera competente y con residencia habitual en el extranjero, **es o va a ser desplazado a España por adoptantes con residencia habitual en España, bien después de su adopción en el Estado de origen, bien con la finalidad de constituir tal adopción en España.***

*Nazioarteko eraginaren tesia*: Nazioarteko arbitrajeari buruzko 60/2003 Legeak honako hau dio arbitraje bat nazioartekoa izateko: *“la relación jurídica de la que dimana la controversia afecte a intereses del comercio internacional”*; TFUEko 81. artikulua Europar Erkidegoak mugaz haraindiko eragina duten -bi aldeek egoitza estatu kide berdinean badute ere alde batera

utzita, hasiera batetan behintzat- gai zibiletan kooperazio judiziala garatuko duela zehazten du.

Atzerritar elementuaren tesiak funtzionamendu errazago eta barne logika zabalagoa azaldu arren, azken finean praktika errealean ondorengo kasuak eman daitezke: 1) Nazioarteko elementua duten kasuak, baina inolako nazioarteko eraginik sortzen ez dutenak. Nazioartekoak ez diren kasu bezala lantzen dira; 2) Atzerritar elementurik ez duten kasuak, baina nazioarteko merkataritza testuinguru batetan ezartzen direnak. Juridikoko nazioarteko kasu bezala lantzea da logikoena; 3) Egunerokotasuneko kasuak atzerritar elementua bi aldeentzako ezezaguna eta hauteman ezina denean - egunerokotasuneko edozein erosketa-. Barne kasu edota nazioartekoak ez diren kasu bezala kontsidera daitezke. Egoera hauei Nazioarteko Zuzenbide Pribatua ezartzea aldeentzako ustekabeak diren emaitza juridikoak agertzea ekarriko bailuke, mota honetako harremanetako segurtasun juridikoa ahulduz.

**Nazioarteko tresna legalen ezarpena atzerritar elementua oinarri bezala:** zenbaitetan nazioarteko hitzarmen bat edo beste mota bateko nazioarteko tresna legal bat aplikatzeko, nazioarteko elementu zehatz bat izatea eskatzen da. 1956 urteko Errepide bidezko Nazioarteko Merkantzia Garraioari buruzko CMR Hitzarmenak bere ezarpenerako merkantziaren hasierako lekua eta amaierakoa bi herrialde ezberdinetan gotea eskatzen du.

Zenbaitetan nazioarteko hitzarmenak agertzen dituen eskakizunak betetzen ez direla eman daiteke, nahiz eta nazioarteko elementua agerian egon, honako kasuetan nazionalak diren Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak aplikagarriak izango zaizkie.

## VII. Nazioarteko egoera pribatuen egungo ezaugarriak

Aurrekari historiko moduan Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Aberats, bohemio eta artisten Zuzenbide bezala kontsideratua izan zela aipa genezake, nazioarteko bizitza bat izan zezaketen pertsona bakarrak hain zuzen ere. Gaur egun berriz, ikuskera hori guztiz aldatu da, gure gizartea nazioarteko izaera handikoa baita ondorengo izaerak azaltzen dituelarik: 1) Nazioarteko harreman pribatuak ugariak, eta ohikoak dira gaur egunean. Teorikoki mundua mugarik gabeko espazioa da, pertsona eta lehiakide ekonomikoak abiadura handian eta askatasun handiz mugitzen dira nazioarte mailan. Kultura, politika eta historia ezberdintasunek ez dute pertsona eta ekoizpen faktorearen mundu mailako zirkulazioa eragozten. Modu honetan, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua egungo testuingurua kontuan izan behar du eta aldaketekin batera bere ikuspuntu metodologikoa ere eraldatu; 2) Nazioarteko harreman pribatuak edozein motatakoak izan daitezke, gainera, familia-ekontza, dibortzio, adopzio ... Zuzenbideei eragin diezaieke -Ondare Zuzenbidean, nazioarteko kontratazioan, kontratuzkoa ez den erantzukizuna, jabetza eta abar-; 3) Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko subjektuak gaur egunean oso anitzak dira. Pertsona fisikotik hasita, pertsona juridikoraino iristen dena, derrigorrez merkataritza-sozietate, nazioarteko maila pribatuetan eta nazioarteko merkataritzan Estatuak subjektu pribatu bezala jokatuz, eta nazioarteko erakunde eta sozietateak aurkituz.

Nazioarteko merkataritza ekintzaren hedapenaren jatorri bezala, eta ondorioz nazioarteko harreman pribatuen sorburu dena, ondorengoak zerrenda ditzakegu: Globalizazio ekonomikoa; Garapen teknologikoa; Migrazioaren bosgarren fasearen hasiera; Pertsonen turismo eta mugigarritasuna; Ikasleen nazioarteko zirkulazio edo mugimenduak; Multinazionalitateko langileen ekintza eta mugimenduak; Nazioarteko jaiotzen desoreka; Maitasuna.



## **1. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren garapena Zuzenbide interkulturalerantz**

Kultur aniztasuna egunean ematen diren nazioarteko harreman pribatu mota eta kopuruaren areagotzearen ondorioa da. Gaur egunean, munduan, bizitza eredu ezberdinak dituzten erakunde eta irudi juridiko anitz eta ezberdinak elkarbizitzen dute. Modu honetan, beste lekuetako kulturak herrialde ezberdinetan, kultura desberdinekin, elkar bizitzen dute. Lurralde edota eremu zehatz batetan dagoen kultur aniztasunak gizarte osoa aberasten du, baina era berean, egoera kontrolatzen duen zuzenbide jakin bat eskatzen du une, espazio eta denbora orok ez baitute egoera bera berdin kontrolatzen. Zuzenbide zehatz horren beharraren arrazoi nagusia, pertsona eta egoera juridiko orori aplikagarria den zuzenbide unibertsalik ez gotea da.

Aurreko guztiaren emaitzak ondorengo hauek ditugu: a) Gaur egunean Nazioarteko Zuzenbide Pribatua multikulturala da, munduan dauden dibertsitate juridiko eta kulturala babestea, pertsona eta komunitate ezberdinen arteko elkarbizitza baketsua sustatzea, eta oinarrizko eskubideen errespetua du helburu; b) Nazioarteko Zuzenbide Pribatua interkulturaliterantz bideratzen da. Kultura aberastasuna, kultura ezberdinen baloreen trukea, eta balore demokratikoetan oinarritzen den kultur aniztasuna. Jomuga hau derrigorrez puntu hauek izan behar ditu oinarri: 1) Kohesio eta elkarbizitza baketsua bermatzen duten printzipio juridikoak; 2) Gizarte batek hartzen dituen atzerritar guztiak barneratzeko gizarteratze prozesu bat egin behar da, gizarte hartzailearen aldetik derrigorrezkoa ez den asimilazioa eskatuz, eta gainera bien aldeetako balore kulturalak errespetatzen direlarik; 3) Gizarteratzea pertsona ororen aukera berdintasuna bermatzen duen prozesua izan behar da, kultura edota jatorria dena dela ere, diskriminazioa saihesten delarik.

## **2. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren oinarri eta funtzioak**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren presentzia bi faktoreetan biltzen da bereziki: 1) Mundua legedi ezberdinak dituzten Estatuak osatzea; 2) Mugaz bestaldeko harreman juridikoen existentzia; 3) Europar Batasuneko Estatuaren errealitate juridikoa.

Mundua legedi ezberdinak dituzten Estatuak osatzea: Munduan zazpi mila milioi pertsonak elkarbizitzen dutela, eta guzti honek munduan independente diren Estatuak egotea -zehazki 195 Estatu- ahalbidetu duela kontuan izan beharreko datuak dira. Era berean, Estatu bakoitzak bere Lege, autoritate eta justizia auzitegi propioak ditu. Ez dago mundu mailako Zuzenbiderik, munduko Estatu guztientzako berdina eta bakarra dena, ezta munduko pertsona guztientzako berbera dena. Beraz, nazioarteko esfera pribatuetan eman daitezkeen gorabeherak arautu ditzakeen nazioarte mailako jurisdikziorik ere, gaur egunean behintzat, ez dago.

Banaketa juridiko horren emaitza bezala egun famili juridiko ezberdinak elkarbizitzen direla da, Zuzenbide konparatuak errealitatea hau ikustea ahalbidetzen digu. Are gehiago, Zuzenbide estatalak 5 familia handitan sailka ditzakegu. Modu honetan familia bereko Zuzenbide estatalak ezaugarri berdinak dituzte nahiz eta ezberdintasunak ere izan. Bi familia juridiko ezberdinetako Zuzenbide estatalai dagokionean, ezberdintasunak oso nabariak dira.

Familia bat kidetasun juridiko-tekniko, ideologiko eta kulturala duten sistema juridiko estatalen multzoa da.

Egun adibidez, mundu mailan bost familia juridiko elkarbizitzen dute, honela azpimarratu du behintzat doktrina juridikoak: *Erromatar germaniko* familia juridikoa; *Commonlaw*-aren familia juridikoa; *Musulman* familia juridikoa; familia juridikoa *Hindua*; eta,

*Txinatar* familia juridikoa. Hauetaz gain beste sistema sozialista ohiak, Errusia adibidez. Baina ez dugu ahaztu behar nahasketak diren beste sistema juridikoak ere badaudela, Eskozia, Quebec eta Louisiana, *commonlaw* eta *erromatar germaniko zuzenbidearen* ezaugarriak dituztenak. Espainiar Nazioarteko Zuzenbideak frantziar, italiar eta alemaniar Zuzenbideekin antzekotasunak erakusten ditu, baita ezberdintasunak ere. Ezberdintasun horiek Europar Batasunean zuzendu beharko lirатеке, EBk berezko pertsona juridiko bezala hartzen ari den indarrak garatzen ari den arautegi kompetentzialari esker.

Ondorioz, munduaren zatiketa estatueta, zehaturik dauden beharrezko mugak agertzen dira. Estatuaren existentzia izaera berdinean edota antzekoak dituzte pertsona taldeen ondorioa da, gainerakoetatik independente eta modu finko batetan antolatzeke eskubidea dute, berariazko autoritate, lege eta auzitegiak izanik.

Nazioz gairik erakundeek dagokionean, Europar Batasuna edo NAFTA, mugarrien kontzeptua malgutzera ahalbidetu dute, baita modu batean, estatu kideen subiranotasuna murriztu ere. Hala ere erakunde horiek ez dute Estatuak desagerrarazi, hortaz, bakoitzak bere lege, autoritate eta auzitegiak mantentzen ditu. Behin hau esan, ez dugu ahaztu behar, EB bezalako erakundeek egun berariazko pertsonalitate juridikoa dutela, beren eskuduntzak areagotzen doazen bitartean subiranotasun nazional partikularrak murrizten direlarik.

*Pertsonen nazioarteko trukearen fenomeno eta nazioarteko harreman pribatuaren igoera.* Agerikoa da lurreko baliabide naturalak murriztak eta mugatuak direla, eta baliabide horiek modu desberdinean banatuak daudela munduaren zabaltasun osoan zehar. Guzti honek bi ondorio nabarmen dakartza zuzenbide arloarentzat: 1) Alde batetik, pertsonen ongizatea hobetzeko ematen diren mundu mailako ondasun, zerbitzu eta baliabideen elkar trukea. 2) Bestetik berriz, kasu askotan -ez guztietan- gizabanakoak aukerak zabaltzeko, esperientziak bizitzeko eta mundua ezagutzeko duten beharra dago. Aukera guzti hauek nazioarteko trukeak ahalbidetzen dituzte, hau dela bide, estatu ezberdinetako pertsonak Estatu zehatz batetako mugarrietatik haratago elkar erlazionatzen dira, guzti honek era beren, herrialde ezberdinetako pertsonen arteko ezkontzak, Estatu ezberdinetan egoitza duten enpresen arteko kontratuak, adin txikiko atzerritarren nazioarteko adopzioak, nazionalitate ezberdinen arteko dibortzioak, atzerritar testamentuak, nazioarteko maileguak, nazionalitate ezberdinetako enpresen fusio eta eskuratzek, enpresen deslokalizazioak -krisialdi ekonomikoetan-, nazioarteko salerosketak, inbertsioak eta abar ahalbidetzen duelarik.

Guzti honen aurrean, estatueta banatua dagoen mundu honetan, norberak sistema juridiko ezberdinak, kultura nazional anitzak, berariazko auzitegi eta lege nazionalak dituzten arren *Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren objektu eta funtzioak* argiak dira. Espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatua Estatu bakoitzak bere Nazioarteko Zuzenbide Pribatu, justizia auzitegi, autoritate publiko eta abar propioak dutenaren ideiatik abiatzen da. Horregatik, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak pertsona orok baliagarria den nazioarteko ekintza juridikoak erraztea du helburu, nahiz eta mundua Estatu subiranoetan banatua dagoela jakin.

Jomuga horrekin Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak oinarritzko bi funtzio garatzen ditu: 1) Nazioarteko segurtasun juridikoa □ funtzio hau ezinbestean egin beharrezkoa da, ez baitago nazioarteko egoera pribatu eta dakartzaten gatazkei aurre egiteko aplikagarria den Zuzenbide mundialik. Munduak dituen banaketa nazional eta sistema juridiko anitzei esker, hasiera batetan behintzat, nazioarteko ekintza juridikoak zigortuak dira. Modu honetan hortaz, segurtasun juridikoa kaltetzen du, bereziki, nazioarteko ekintza edota harremanetan edozein motatako gatazka agertzen direnean partikularrek ez baitakite zein auzitegitara jo, ezta kasu juridiko zehatz horri zein lege zaion aplikagarri. Ezjakintasun juridiko horren aurrean, nazioarteko izaera dituzten harreman juridiko pribatuei segurtasuna bermatzen

dieten arau multzo bat egotea beharrezkoa da -Nazioarteko Zuzenbide Pribatua hain zuzen ere-.

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak erabili ohi dituen mekanismoak honako hauek dira: Nazioarteko egoera juridiko pribatu batetan parte hartzen duten aldeak zein auzitegi eta autoritate estataletara jo behar duten zehazten du Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak; Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak nazioarteko egoera pribatua arautzen duen Lege estatala finkatzen du; Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak egoera juridiko klandikanteak saihestea ahalegintzen da -herrialde batetan baliagarriak eta errealak diren egoerak, baina beste herrialde batetan balio-gaitzak edo irrealak direnak-; Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak nazioarteko segurtasun juridikoa eman nahi die mugaz arandiko harremani. Kontuan izan behar da partikularrek mugaz arandiko harreman eta trukeak segurtasun eza dutela antzematen badute, nazioarteko merkataritza eta nazioarteko harreman pribatuak murriztuko direla, elkar trukea ongizatean kaltetuz; Nazioarteko gatazken eta auzien zenbatekoen murrizketa da Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren beste funtzio nagusi bat, gainera, zein auzitegi eta autoritateen aurrean jokatu behar den zehazten du, baita nazioarteko egoera pribatu hori zein lege arautzen duen ere. Era berea gainerako funtzio hauek ere betetzen ditu: a) Partikularrari nazioarteko auzia zenbateko baxuen sorrarazten dion auzitegi eta autoritateen aurrean ezartzeko baimena ematen du (ikus honako erreferentzia duen epaia, SAAP Barcelona 3 de mayo de 2011); b) Nazioarteko egoera pribatua gatazkaren aldeentzako zenbateko murriztena ekartzen duen zuzenbide aplikagarriaren mende jarri; c) Estatu batetan baliagarriak eta sortuak diren nazioarteko egoera pribatuak gainontzeko Estatuetan ere baliagarriak izatea ahalegindu, modu honetan nazioarteko erabakien zirkulazioaren zenbateko murriztuz.

Guzti honek nazioarteko elkar trukeak eta pertsonen mugikortasuna areagotzen du, ongizatea ere handiagotuz. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak, beraz, mundua independenteak diren Estatuetan banatzea saihestea du helburu, modu honetan, nazioarteko trukeak oztopatzen dituzten norbanakoaren arau juridiko eta ikuspuntuak ekidinez. Funtsean, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua partikularren arteko nazioarteko elkar trukeak errazten dituen zuzenbidea da.

## **VIII. Nazioarteko Zuzenbide pribatuaren edukia**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak hiru galdera handiri ematen die erantzuna: 1.Espainiar jurisdikzio-organo edo beste autoritate publikoak nazioarteko egoera pribatu batek sortzen duen arazo juridiko baten funtsa ezagutzeko konpetenteak al dira? 2.Lehen galderaren erantzuna baiezkoa bada, zein da Zuzenbide aplikagarria nazioarteko egoera pribatu horri? 3.Zein eragin juridiko dituzte Espainian nazioarteko egoera pribatuen inguruan atzerriko ekintza eta erabakiek? Hiru galdera hauen erantzuna biltzeko, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua hiru arau multzoz osatzen da: a) Nazioarteko eskuduntza judiziala; b) Nazioarteko egoera pribatuen Zuzenbide aplikagarria; c) Atzerritar ekintza eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna; d) zuzenbide materiala.

### **1. Nazioarteko eskuduntza judiziala**

Nazioarteko Zuzenbide Pribatuarentzat ezinbestekoa den gaia da, modu honetan, nazioarteko egoera pribatu baten inguruko gauzak lantzeko konpetenteak diren jurisdikzio-organo eta Estatu batetako gainerako autoritateak zehazten ahalegintzen da. Irudika ezazue Italian bizi diren senar-emazteen dibortzio bat espainiar auzitegietan aurkeztu duzuela. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak erantzun beharreko lehen galdera aurkeztutako auzian espainiar jurisdikzio-organoak konpetenteak diren ala ez zehaztea da. Baiezkoa izanik,

dibortzio horri aplikagarri zaion legearen inguruan galdegin beharko dugu. (Ikus dezakegun moduan, lehenik eta behin, nazioarteko eskuduntza judizialaren gaia ebatzi beharko da)

## **2. Nazioarteko egoera pribatuen Zuzenbide aplikagarria**

---

Bigarren pauso batean, sortutako nazioarteko eztabaidan zein zuzenbide zaion aplikagarri zehaztu beharko da. Gehiengo kasuetan nazioarteko egoera pribatu horri zein Lege estatal ezarri behar zaion finkatzean datza. Imajina ezazu Kanadan egoitza duen enpresa bat eta Espainian egoitza duen beste enpresa baten arteko kontratua ez betetzeagatik ezarritako demanda bat. Demanda Kanadan egoitza duen enpresak ezarri du espainiar epaitegi eta auzitegien aurrean. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak ebatzi beharreko lehen gauza espainiar auzitegiek azaldutako eztabaidan eskuduntza duten ala ez zehaztea da -nazioarteko eskuduntza judiziala-. Baiezkoa izanik, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak nazioarteko kontratuari aplikagarri zaion erregimen juridikoa zehaztu beharko du -espainiar legea, kanadar legea, bestelako lege espezifiko edo beste lege bat delarik-, kontratua ez dela bete edo bai zehazteko.

## **3. Legeforismoa**

---

Kasu askotan jurisdikzio-organoak, automatikoki, bere herrialdeetako lege substantiboak ezartzen diete iristen zaizkien nazioarteko eztabaida eta gatazka pribatuei. Honen oinarri nagusia espainiar auzitegiak beste herrialdeetako legeak aplikatzea logikoa den ala ez ikustean datza, lexfori ikuspegi partikularra duen kalitate juridiko handiko zuzenbidea dela jakinik.

Doktrina zientifikoaren gehiengoak ez ditu jurisprudentzi doktrinaren argudio hauek partekatzen, are gehiago, espainiar ordenamenduan ez da inolako araurik Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak, ezta nazioarteko egoera pribatuei aplikagarri zaien atzerritar Legeak ezagutzea debekatzen duenik.

Ondorioz, kasu askotan -ez guztietan-, jurisdikzio-organoek nazioarteko egoera pribatu bati lege substantiboa ezartzeko mekanismoak, foroko lege materiala aplikatzeko trikimailu prozesalak besterik ez dira -bestak beste, nazioarteko orden publikoa, nazioarteko Lege-iruzurra-.

Aurrekoarekin baten egiten badugu, **legeforismo**-aren hiru arrisku nagusiak honako hauek direla esan dezakegu: Uko egiten duten epai eta egoerak sortzeko arriskua -hau da, atzerritar herrialdeetan atzeman eta aurrera eramango ez diren epaiak-; Nazioarteko segurtasun juridikoaren galera dakar -Estatu bakoitzak berarentzat ondo dagokiona ezarriko du, ebazpen anitzak azalduz-, eta *Forum Shopping*-aren sustapena -eztabaida kokatzeko lehiaketa-; Azkenik, guzti honek partikularrentzako gatazken zenbatekoak handiagotzea dakar. Alde batetik, gaiak ezagutzen duen auzitegiaren arabera zein zuzenbide zaio aplikagarri ezagutu beharko dute; bestetik, **legeforismoa** ezarriko zaiola zehazten duen epaia ematen bada, ziurrenik huts egingo duen auzia izango da, guzti honek zenbatekoaren igoera ekarriko duelarik.

#### **4. Atzerritar ekintza eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna**

Atzerritar ekintza eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasun sektore honek Zuzenbide pribatuko gatazkak konpontzen dituzten atzerritar arauak Espainian zein eragin eta efektu izango dituzten zehaztea du helburu.

##### **a) Deklaraziozko babesa eta onartutako babesaren arteko bereizketa:**

Espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak partikularren artean ematen diren nazioarte izaera duten gatazkak konpontzeko bi modu edota bide juridiko onartzen ditu: 1) Deklaraziozko babesa: honen arabera aldeek ezagutza zuzeneko prozesu bat espainiar auzitegi eta autoritateen aurrean premia dezakete, honela, espainiar auzitegi eta autoritateek zuzenbidea dagoen edo eskubide baten jaiotza ematen den agertzen dute. Deklaraziozko babesa ematen denean, auzitegiek, lehenik eta behin, nazioarteko eskuduntza judizialeko bere arauak ezartzen dituzte gaiak jakin dezaketen egiaztatzeko, bigarrenik, gatazka konpontzeko ezarri behar den lege estatala zehazteko, bere Zuzenbide aplikagarriko arauak ezartzen dira -gatazka arauak batez ere-. 2) Onartutako babesa: aurretik atzerritar auzietara jo eta eskubide horien existentzia dagoela ziurtatzen duen ebazpen bat duten partikularren artean ematen da. Kasu hauetan atzerritar ebazpenak Espainian eragin juridikoak izan ditzaten eska dezakete aldeek. Baliagarritasun hori espainiar Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren bitartez arautua geratuko delarik.

Agertutako bereizketen ondorioak: 1) Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauen arabera espainiar auzitegiak prozedura irekitzeko eta nazioarteko gaiak ezagutzeko gai ez badira, prozedura hori beste Estatu eta auzitegiak eraman beharko da. Modu honetan nazioarte mailan babes judiziala gordez; 2) Atzerriko erabakiak Espainian eragin legalak izatera uko egiten bazaie, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak espainiar auzitegien aldetik nazioarteko eztabaidaren ezagutza zuzena izango duen prozedura irekiko dela onartzen du; 3) Espainiar zuzenbideak nazioarte mailan Estatu ezberdinak daudela kontuan hartzen du, bakoitzak bere botere judizial eta jurisdikzio-zerbitzuekin. Hasiera batetan behintzat, guzti horiek legitimoak eta nazioarteko gatazka pribatuei soluziobide egokiak emateko gai dira. Alegia, partikularrek aske dira zuzenki espainiar auzitegiak jotzeko eta benetako babes judiziala eskatzeko, edo beste Estatu eta auzitegiak jotzeko, ondoren Estatu honetan emandako ebazpena Espainian eragin judizialak izateko eskatuz (onartutako babesa).

##### **b) Nazioarteko Zuzenbide Pribatuan baztertutako sektoreak: Nazionalitatea, Atzerritartasuna, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, eta Autoritateen nazioarteko kooperazioa:**

Aurretik esan dugun bezala, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua hiru sektorez osaturik dago: nazioarteko eskuduntza judizial, Zuzenbide aplikagarria, eta atzerritar ekintza eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna, guzti horiek nazioarteko egoera pribatuekin bat. Ondorioz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuan sartzen edota kabitzen ez diren aldeak aipatu behar ditugu: Nazionalitatearen Zuzenbidea, Atzerritartasun Zuzenbidea, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa - Nazioarteko Zuzenbide Penala, Nazioarteko Zuzenbide fiskala, Nazioarteko Zuzenbide Administratiboa, eta Estatu ezberdinetako autoritateen arteko nazioarteko kooperazioa. (Guzti hauek Estatu baten eta partikular baten arteko nazioarteko harreman juridikoak arautzen dituzte, beraz, ez dira harreman pribatuak, nahiz eta kasu askotan hauetako zenbait aspektu Nazioarteko Zuzenbide Pribatuan kontuan hartu.

c) **Herrialde barneko Zuzenbidearen aipamen berezia:**

Herrialde barneko Zuzenbidea berez ez da Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren zati, nahiz eta alderdi askotan antzekotasunak izan. Argi dago munduan sistema estatal anitzak daudela. Hots, badaude ordenamendu juridiko berdinean aldi berean Zuzenbide Pribatuko sistema juridiko ezberdinak dauden Estatuak. Hauek legegintza-anitzeko Estatu bezala ezagutzen dira. Ondorioz, partikularrei eragiten dieten egoera juridikoak Estatu berdinean Zuzenbide Pribatu desberdinetako arauz erregulatuko dira.

Herrialde barneko Zuzenbideak partikularren artean ematen diren gatazka pribatuetan ordenamendu juridiko berdineko zein Zuzenbide Pribatuk ezagutu behar duen zehazten du.

Dena dela, ondorengo egoerak bereizi behar dira: a) *Estatu federalak*: batasuneko Estatu kide bakoitzak berezko antolakuntza judizial eta Zuzenbide Pribatua du. Kasu hauetan harreman inter-federalak nazioarteko harreman pribatuen antzekoak direla esan dezakegu. Modu honetan, Estatu pluralean legislazio anitzen bitartez sortzen diren gatazkak, nazioarte mailan ematen diren nazioarteko harreman pribatuetan ematen diren gatazkekin antzekotasunak dituzte, -hau da, eskuduntza judiziala, zuzenbide aplikagarria eta beste estatueta autoritateek emandako ebazpenen baliagarritasuna-. Horren kausaz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak egoera pribatu inter-federali ere aplikagarri zaizkie. Ameriketako Estatu Batuak kasu; b) *Herrialdeez osaturiko Estatuak*: Honako Estatuak ez dira Estatu federalak. Kasu honetan berezko Zuzenbide Pribatua duten lurraldeez osaturiko Estatuak dira. Beraz, barne gatazkak konpontzen dituzten Zuzenbide Interregional arauak daude. *Doktrina bereizketa*: doktrina zientifikoaren alde batek arau mota hauek barne gatazka legeak konpontzen dituztela diote, eta ondorioz Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak direla. Zuzenbide Interregionaleko arau mota hauek gatazka baten aurrean ordenamendu juridiko aplikagarri anitzak elkar bizi direnean zein Zuzenbide zaion aplikagarri zehaztean datza.

Doktrinako beste autore batzuen arabera ordea, aurreko ikusmoldea okerra da. Hauen ustetan Nazioarteko Zuzenbide Pribatuak ematen dituen soluzioak nazioarte mailan agertzen edo gertatzen diren egoeretan ematen dira, Estatu bakoitzak bere subiranotasuna mantenduz eta berezko antolakuntza juridikoa izanik. Alegia, barne Lege gatazka egoerak estatu barnean sortzen dira. Testuinguru horretan, lurralde-organo bakoitza berez ez da subirano, eta gainera ez du berezko botere judizialik. Guzti honegatik, ikusmolde hau duen doktrinak Zuzenbide interregionala, nazio barneko irisgarritasuna duenez, Nazioarteko Zuzenbide Pribatutik at geratzen dela ulertzen du. Gainera, nazioarteko gatazka arauak ez bezala, nazioarteko zirkulazioan ebazpen judizialez, barne gatazka legeez, zaindu behar dela ulertzen du. Honela, erabakien zirkulazioa bermaturik dago (Espainia kasu), inter-federalak salbu.

Azkenik, nahiz eta Zuzenbide interregionala Nazioarteko Zuzenbide Pribatua ez izan, harremana oso gertukoa dela, eta ondorioz, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua esparruan Zuzenbide interregionala kontuan hartu behar dela esan dezakegu.

Espainiako kasua: Zuzenbide Pribatuko ikuspegi batetik Espainia lurraldez osaturiko Estatu bat da, legeria anitzekoa, eta Autonomi Erkidegoetan antolatua. Hauetako Autonomi Erkidego batzuk berezko Zuzenbide Pribatua dute, Kode Zibil eta Foru-Zuzenbideak (Zuzenbide Forala) elkar bizitzatik eratorriak (Kode Zibileko 16. artikulua). Era berean, zenbait materia zuzenbide zibil komunaren bitartez arautuko zirela adostu zen (13. artikulua).

Espainiar Konstituzioak lehen xedapen gehigarriaren bitartez aniztasuna berretsi du honakoa esanez, “la constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales”. Era bere Espainiar Konstituzioko 149.1.8 artikulua honela dio, “El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respeto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial”.

## **5. Lege gatazkak konpontzeko Espainiar Zuzenbide interregionaleko arauak**

Espainiako barne lege gatazkak, Britainia Handiko eta Ameriketako Estatu Batuetakoak ez bezala -lurralde bakoitzak gatazka legeak dituzten berezko zuzenbidea dutenak-, gatazka sistema bakarrarekin konpontzen dira, eta sistema hori Estatuak sortzen du bere lurralde guztirako. Sistema Konstituzioko 149.1.8 artikulua arabera sortua izan da, Estuari lege gatazka arauak sortzeko eskuduntza osoa ematen diona.

Doktrinaren gehiengoak Estatu zentralak eginiko zuzenbide interregionala defendatzen du, hortaz zuzenbide interregionala bakarra eta berdina da Estatu guztirako. Behin aurrekoa jakinik, Estatu batetako lurralde ezberdinetako legislazio aniztetatik sor daitezkeen lege gatazkak ondorengoaren baitan konpon daitezkeen galdegin behar dugu: 1) Kasu interregionaletarako arau materiak berezien bitartez; 2) Kasu interregionalerako gatazka arau espezifikoaren bitartez; 3) Edo, nazioarteko lege gatazkak konpontzeko erabiltzen diren gatazka arauen bitartez.

Hasiera batetan lege gatazka interregionalak nazioarteko kasuetarako erabiliak diren gatazka arauen bitartez bideratzen dira. Baina ikuspuntu hau ez da guztiz betetzen, sistema misto bat eskatuz, alegia, interregionala den gatazka zuzenbidea nazioarteko hainbat gatazka arauarekin nahasturikoa. Ondorioz, egungo eredia hiru puntu hauez osatua dago: a) zenbait lurralde zehatzetan erakunde juridikoen ezarritako Zuzenbide espezifiko batzuen soluzioen onarpena (Kode Zibileko 16.2 art.); b) zuzenbide interregionaletik eratorritako hainbat soluzio espezifiko (Kode Zibileko 16.2 artikuluan jasota daudena); c) nazioarteko lege gatazkak konpontzeko bideratutako espainiar gatazka arauak (Kode Zibileko lehen titulua - 16.1 art.-).

Nahiz eta kasu interregionalezko aurreko sistema erabili ondorengo berezitasunak zenbatu ditzakegu: 1) Lehenik eta behin, nazionalitatea auzotasun zibilagatik aldatu zen. Honela dio Kode Zibileko 16.1 artikulua, “*será ley personal la determinada por la vecindad civil*”. 2) Bigarrenik, ager daitezkeen zenbait kasu ezin dira auzotasun zibilaren baitan konpondu -irudika ezazu kontratu betebeharren materiako kasuak auzotasun zibilaren irizpidearen arabera bideratzea-. Guzti honen ondorioz, auzotasun zibila ez da irizpide bakarra zuzenbide zibil edo foralari loturiko eztabaida baten inguruan erabakitzeko. Kontratu betebeharren materiaren kontratua egin den tokiaren lege aplikagarriari eutsiko diogu kasu askotan, baita zuzenbide errearen kasuetan ere, egoera gertatu den tokia edota higiezinaren koka lekuko lege aplikagarriak ere.

Laburbilduz, legegileak barne legeetako gatazketan nazionalitateak lotura puntu bezala jokatu behar ez duela ulertzen du, bereziki Espainiar lurraldean, baina ez subjektu berezi hori berezko Zuzenbide duen lurralde organoarekin (ikus Kode Zibileko 14.2 artikulutik 14.16ra eta 15. artikulua).

Ondorioz, Estatuan elkar bizi diren Zuzenbide pribatuko sistemak Espainia Zuzenbide direla esan dezakegu, eta Epaitegi, auzitegi eta autoritateek aplikatu beharra dute.

## IX. Bibliografía

- AGUILAR NAVARRO, M., *Derecho internacional privado*, vol. I, t. I, 4ª ed., Sección Pública de la Universidad Complutense, Madrid, 1976, pp. 2-35
- AGUILAR NAVARRO, M., “Divagaciones sobre las llamadas doctrinas eclécticas en el Derecho internacional privado”, *Revista Española de Derecho Internacional*, vol. XIV, 1961, pp. 145-168
- ÁLVAREZ GONZÁLEZ, S., “Objeto del DIPr y especialización normativa”, *Anuario de Derecho Civil*, 1993, pp. 1109-1151
- ÁLVAREZ RUBIO, J.J., “El Tratado de Lisboa y la plena comunitarización del espacio de libertad, seguridad y justicia”, *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, nº 15/2008,
- BASEDOW, J., *The law of open societies: private ordering and public regulation in the conflict of laws*, Leiden, Brill Nijhoff, 2015
- BONOMI, A., “Globalización y Derecho Internacional Privado”, *XX Jornadas de la Asociación Española de Profesores de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales*, Madrid, 2005, pp. 223-237
- BOSCHIERO, N., “Norme di diritto internazionale privato facoltative”, *RDIPP*, 1993, pp. 541-588
- CALVO CARAVACA, A.L., y CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., *Derecho Internacional Privado*, vol. I, 18ª ed., 2018, Comares, Granada, pp. 1-67
- CAMPUZANO DÍAZ, B., Rodríguez Vázquez, MªA., et al, *Manual de Derecho Internacional Privado*, 5ª ed., 2018, Tecnos, Madrid
- CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., “Règle de conflit et théorie économique”, *Revue Critique de Droit International Privé*, 2012, pp. 521-538
- CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., *Conflicto de Leyes y teoría económica*, Ed. Colex, Madrid, 2011
- CARRILLO SALCEDO, J.A., *Derecho internacional privado*, 3ª ed., Tecnos, Madrid, 1907, pp. 4 y ss.
- DE MIGUEL ASENSIO, P.A., “El derecho internacional privado ante la globalización”, *Anuario Español de Derecho Internacional Privado*, t. I, 2001, pp. 37-87
- DUTOIT, B., *Le droit international privé ou le respect de l’alterité*, Bruylant, Bruselas, 2016
- ELVIRA BENAYAS, M.J., “El reparto de competencia entre la Unión Europea y los Estados en materia de Derecho internacional privado. Drama en tres actos”, *Pacis artes. Obra homenaje al profesor J.D. González Campos*, Madrid, 2005, pp. 1453-1470
- ESPINAR VICENTE, J.Mª, *Tratado elemental de Derecho internacional privado*, Alcalá de Henares, Madrid, 2008, pp. 13-48



- GARAU SOBRINO, F., “¿Qué Derecho internacional privado queremos en el siglo XXI?”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, vol. 4, nº 2, 2012, pp. 140-158
- GARAU SOBRINO, F., “El Derecho Internacional Privado que viene. El futuro ya está aquí”, *Annuario español de derecho internacional privado*, nº 17, 2017, pp. 303-332
- GARCIMARTÍN ALFÉREZ, F.J., “La racionalidad económica del DIPr”, *Cursos de Derecho Internacional Vitoria-Gasteiz*, Universidad del País Vasco, 2001, pp. 88-154
- GÓMEZ JENE, M., Guzmán Zapater, M. et al, *Derecho Internacional Privado*, Uned, Madrid, 2013
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., “Conflicto de leyes (en el espacio)”, *Enciclopedia Jurídica Básica*, 1995, pp. 2311-2316
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., “El sistema español del Derecho internacional privado: formación histórica y fuentes”, *Derecho internacional privado*, vol. I, UNED, Madrid, 2003, pp. 29-107
- GUZMÁN ZAPATER, M., “Sobre la función del Derecho internacional privado y técnicas de reglamentación”, *Pacis artes. Obra homenaje al profesor J.D. González Campos*, Madrid, 2005, pp. 1619-1643
- GUZMÁN ZAPATER, M., *Sociedad internacional y Derecho internacional privado*, Colex, Madrid, 2006
- MENGOZZI, P., “Private International Law and the WTO Law”, *Recueil des Cours de l'Académie de Droit International de La Haye*, vol. 292, 2001, p.243-383
- RAMIRO BROTONS, A., “Reglas de conflicto y normas materiales de Derecho Internacional Privado”, *Temis Symbolae García Arias*, nº 33-36, 1973/1974, pp. 605-646
- REQUEJO ISIDRO, M., “Responsabilidad civil y derechos humanos en EEUU: ¿el fin del ATS?”, *Indret.com*, julio 2011
- ROZAS FERNÁNDEZ, J.C., “Sobre el contenido del Derecho internacional privado”, *Revista Española de Derecho Internacional*, vol. XXXVIII, 1986, pp. 68-108